



ECHIETAN

(NEŠKENTZAT ALKAR-IZKETA)

Antzeztokia: Sišili'ren echeko jan gela.

Sišili. *(Gelako tresnak antolatuaz.)* Lašter etorriko da Mikelacho, ta ja zer jostaketak egin biar ditugun biyak! Lenbizi, echi-
tan ibilliko gera. Ni echekoandria nitzala... *(Batera ta bes-
tera oso arro ibilliyaz.)* Ez dakit zergatikan dan, baña neri
echekoandre izatia askoz gogokuago iduritzen zait, neska-
me izatia baño. Guziyak ezin echekoandre izan ordia; gu-
ziyak echekoandre bagiña, guziyak neskame izango giña-
ke. Mikelacho ona da berriz, ta naiko du neskame izan
Chanchetan ¿e? Au gauza, neskame izateko ona izan biar,
eta echekoandre izateko berriz, ona ala char berdin. Eche-
koandretarako guziyak artakuak. Neskamiak onak ez ba-
dira echetik kanpora bigaltzen dituzte; bañan echekoan-
driak charrak izan arren ezin echetik bigaldu. ¿Zergatik
ote da? *(Mikelacho sartzen da.)*

Mikelacho. ¡Sišili!

Sišili. ¡A, Mikelacho! ¿Emen al zera?

Mikelacho. *Ai Mariyak* arte zurekin jostatzerá etortzeko esan dit amak.

Sišili. ¡Zer ederki ibilliko geran! Zuk nai dezuna egingo degu.
Zuri deizkiyozuna. Ara: ¿nai dezu echietan ibilli gaitian?
Zuk nai dezuna. ¿Echietan, e?

Mikelacho. Etzait bada asko, asko

Sišili. Bai, bai; echietan ibilliko gera. Ikusiko dezu zer ederki.

Zuk nai bezela egingo degu guziya Ni izango naiz eche-koandre ta zu neskame.

Mikelacho. ¡A! ¡Zu beti agintzen!

Siñili. ¿Nola nai dezu bada?

Mikelacho. Echekoandre, ez du beti batek izan biar. Chandaka.

Siñili. ¿Ikusi al dezu beñere echokoandrerik neskamiakin chandatzen?

Mikelacho. Bai biar; ala jakingo luteke echekoandriak neskame izatia zer dan.

Siñili. Bai, bana; neskamiak, bein echekoandre egiñ ezkeru, ez luteke geyago neskame izan naiko.

Mikelacho. Zuri gertatzen zaizuna bera: beti echekoandre, beti echekoandre.

Siñili. Begira, Mikelacho: zuk nai dezun guziya egingo degu. Zuk nai dezun bezela jostatuko gera. Ikusiko dezu zer ederki. ¿Ni echekoandre nitzala, e?

Mikelacho. Bai, ta ni neskame..... e?

Siñili. ¡Chanchetan!

Mikelacho. Gero, nire echekoandre izatera bada.

Siñili. Bai, nai dezun guziya; zuk nai dezun bezela ibiliko gera. Tira, jarri bada, jarri zazu mantala. (*Zatar bat ematen dio, ta Mikelacho'k jartzen du gerriyan.*) Nik chapelara jarriko det. (*Jarriyaz.*) Badakizu, gaurko egunian, ez da echekoandrerik zapel aundi bat buruan gabe ibiltzen ez danik. Nik uste det asko, oiera ere beren orrekin juaten dirala.

Mikelacho. Zu juango ziñake beñepin.

Siñili. Neskamiak iñilik. Obeto egingo zenduke eltzari ondo begiratuko bazeniyozuke. Egunetik egunera utziyagauzaude. Lanerako batere arretik ez daukazu. Tipulak eta porrupe-
rrejillak arrastaka.....

Mikelacho. Bañan.....

Siñili. Iso! Echekoandriari etzayo orrela erantzuten. Ajolakabe ta lotsagabe bat besterik etzera.

Mikelacho. (*Egiyetan asarretuta.*) Zu izango zera lotzagabia, zu.

Siñili. Chanchetan esaten dizut. Chanchetan.

Mikelacho. Zer chanchetan eta zer egietan. Beti erriyetan ari zera ta.....

Siñili. ¿Ez dakizu bada, echekoandriak beti erriyetan ari biar dutela?

- Mikelacho.* Nik ez det bada geyago neskame izan nai. (*Mantala botiaz.*) Beti erriyetan ta marmarizoka, atso zarrak bezela: mar, mar, mar, mar..... Nik ere echekoandre nai det. (*Asarretuta baztar batera juanaz.*)
- Siñili.* Ori zetoza zera, Mikelacho.
- Mikelacho.* Neskame izatez aspertu naiz ni,
- Siñili.* Aguro; asi besterik ez degu egin ta. (*Iñilaldi baten ondoren.*) Tira bada: zuk nai dezuna egingo degu.
- Mikelacho.* Bai, beti ori esan, eta gero, azkenian, zuria egin.
- Siñili.* Guazen bada, zu ere echekoandre ziriala: biyak echekoandre.
- Mikelacho.* Ekatzu orduban chapel bat.
- Siñili.* ¿Zertarako dezu chapel?
- Mikelacho.* ¿Zorrek esan ez dezu bada, chapelik gabe ibiltzen ez dala echekoandrerik? Nik ere chapelak biar det.
- Siñili.* (*Erdi asarre*) ¿Ez aldezu besterik biar?
- Mikelacho.* Biar detanien esango dizut.
- Siñili.* Ichigon zazu bada. (*Chapelaren billa jauten da.*)
- Mikelacho.* ¿Zer uste du orrek? Aguro aspertu omen naiz neskame izatez; ez bera, echekoandretzaz. Gauza arrigarriya, echekoandretzaz ez da inor aspertzen. Zer atsegina izan biar duben agintze ori, bestien gain egote ori. Onek ere baluke..... baleki.
- Siñili.* (*Chapela ekartzen du ta Mikelacho'k jartzen du.*) Ara emen zapela, galant askua.
- Mikelacho.* Zenbat aundiyago, itzal geyago.
- Siñili.* (*Echekoandre antzera itz egiaz.*) Andre Mikela: gaurko eguneko mirabiakin ezin burutu da. Oso buruz gain egin digute. Beren burubak apaindu, echekoandriak bañore pirlilin parpa geyagorekin, iji aja batetik bestera ibilli, ta besterik ez daukate.
- Mikelacho.* Baña ¿orain ere neskamiakin eraso biar al degu?
- Siñili.* ¿Ez dakizu bada, echekoandriak, beti neskamien kalte aritzen dirala izketan?
- Mikelacho.* ¡E! Beste zerbait asmatu zazu.
- Siñili.* Guazen bada; jantziyaz itzegingo degu. Andre Mikela, soñeko batzuben badaukazkit nik..... ¡nolakuak!.....
- Mikelacho.* Nik ere bai.

- Siñili.* Arrosa koloreko panpoša panpoša bat, arratzaldetan ibiltokira juateko; urdinška bat, illunabarretan adizkide eche-etara azaltzeko.
- Mikelacho.* Nik chokolade kolorekoa, chokolatia artzera juateko.
- Siñili.* Beste bat berriz badet, jura gauzaren ederra! ez det jazten intzentu egunetan ez bada.
- Mikelacho.* Nik berriz badet soñeko bat, orain ibiltzen diran oyetakua. ¿Nola dira, kolkua ta besuak aidian, erdi larru-gorriyan? Bada oyetako bat daukat..., igari egitera juateko.
- Siñili.* ¡A! Guk. bai: jantzi, iñor ez bezela; baña jan, oraindik ere obetuago.
- Mikelacho.* Guk ere bai.
- Siñili.* Gure echian ollaškuak eta eperrak nai ezik egoten dira.
- Mikelacho.* Gurian ere bai.
- Siñili.* *Langostak* eta, chipiroyak eta..... ez ditu iñork ere nai.
- Mikelacho.* Gurian, ez ta katubak ere.
- Siñili.* *Postrez* berriz, bigaltzen dizkigute *tarta* ta *pastel* batzubek.....
- Mikelacho.* Guri ere bai.
- Siñeli.* Ala, udare ta sagarrak eta..... ez ditugu ukuitzen.....
- Mikelacho.* (*Batetan patrikerak begiratubaz.*) Guk ere.... ¡E! ¿Nun utzi det?.....,
- Siñili.* ¿Zer dezu, Mikelacho?
- Mikelacho.* ¿Zer detan? Galdetu zaidazu: zer ez detan.
- Siñili.* ¿Zer bada?
- Mikelacho.* Amak eman diran sagarra, echian utzi det aztuta. Billa nua.
- Siñili.* Etxuazela, Mikelacho: ¿emen ez daukazkigu bada postre ugariyak: *tarta* ta *pastel* ta?.....
- Mikelacho.* Zure *postriak* chanchetakuak dira ordia, ta neri amak eman diran sagarra egiyerakua. Banua. (*Chapela kendubaz.*)
- Siñili.* Ichogon zazu. Echekoandriak ez dira orrela juaten, ez agur eta ez ariyo. Jarri zazu chapela, atoz onera. (*Mikelacho'k jartzen du chapela, aurreratzen dira biyak jendea gana ta esaten dute:*)
- Biyak.* Agur. (*Juaten dira.*)

TORIBIO ALZAGA